

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 274/2020 Foru Dekretua, irailaren 8koa, zeinaren bidez M. Blanca de la Peña Bernal izendatzen baita Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko buru

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak eta haien eskumen eremua ezarri ziren; halaber, data bereko hurrengo 325/2019 Foru Dekretuaren bidez, sail bakoitzeko foru diputatuak izendatu ziren, besteak beste Javier Hurtado Dominguez jauna, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu kargurako.

Ondoren, Diputatu Nagusiaren irailaren 7ko 273/2020 Foru Dekretuaren bidez, Javier Hurtado Dominguez Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titular jauna kargutik kentzea xedatu zen, hark hala eskatuta.

Hori dela eta, Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 19.8. artikulua babespean nire esku ditudan ahalmenez baliatuz, ebazpen honen bidez sail horren arduraduna izendatzen da. Horretarako,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maria Blanca De la Peña Bernal andrea Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu izendatzea.

Bigarrena. Foru dekretu honen berri ematea Arabako Batzar Nagusiei, eta ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE